EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PRESKRIPZIO TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA

ERABERRITZEAK EUSKO LEGEBILTZARRAREN EGOITZAKO BEHEKO SOLAIRUAN
Esp.: 272/2026

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • www.legebiltzarra.eus

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

1 LIZITAZIOAREN XEDEA 2

2 EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA 2

2.1 BEHEKO SOLAIRUA ERABERRITZEKO LANAK 2

3 OHAR OROKORRAK 3

3.1 INSTALAZIOAK BISITATZEA 3
3.2 EPEAK ETA PENALIZAZIOAK 3
3.3 ADJUDIKAZIODUNAREN KONTRATU-ARDURADUNA 3
3.4 OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA 3
3.5 SEGURTASUNA ETA OSASUNA OBRETAN 4
3.6 HONDAKINEN KUDEAKETA 4

4 KONTRATUAREN AURREKONTUA 5

4.1 AURREKONTUA ETA LIZITAZIOAREN PREZIOAK 5

5 ESKAINTZA AURKEZTEA 6

5.1 ESKAINTZAK BALORATZEKO 6
5.2 LANAK HASI AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA 7
5.3 LANAK AMAITUTAKOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA 7

6 ERANSKINAK: AURREKONTUA ETA PLANOAK 8

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • www.legebiltzarra.eus

1 LIZITAZIOAREN XEDEA

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, 2026ko martxoaren 3an egindako bilkuran, onetsi egin zuen talde parlamentario bati dagokion eremua eraberritzeko obrak egitea Legebiltzarraren egoitzako beheko solairuan.

Preskripzio tekniko berezien agiri honen xedea da Eusko Legebiltzarraren egoitzaren beheko solairuaren zati baten eraberritzea arautuko duten irismena eta baldintza teknikoak erregulatzea eta definitzea.

2 EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA

Eremu bat egokitu behar da talde parlamentarioaren beharrizanetara, talde politikoei dagozkien beste eremu batzuetan erabilitako materialak eta soluzioak berdinduz, agiri honen eranskinean dagoen aurrekontuan deskribatzen den bezala.

Eraberritze-lanak 2026ko ekainetik aurrera egin beharko dira, bilkura-aldia amaitu ondoren, eta 2026ko irailaren 1a baino lehen bukatu beharko dira, ordurako bulegoak osorik erabiltzeko moduan egon daitezen.

2.1 Beheko solairua eraberritzeko lanak

Gaur egun talde parlamentario bati dagokion eremua eraberritzeko dira lanak, haren instalazioak gainerako talde parlamentarioenen ezaugarrietara egokitzeko, eraikuntzaren eta estetikaren aldetik.

Hau ere sartzen da egin beharreko lanetan: mugitzea eremu horretako (egungo egoera) altzariak eta materialak, adjudikaziodunak aldez aurretik markatu beharko dituenak, gero berriro jarri ahal izateko egoera eraberrituaren planoaren arabera.

Lizitatzaileek beren proposamenean adierazi beharko dute zer lan egin beharko diren aldez aurretik, obrak 2026ko ekainaren 26tik aurrera hasi ahal izateko, eta berariaz aipatu beharko dute Eusko Legebiltzarrak edo eraberrituko diren eremuetako erabiltzaileek egin beharreko jarduketa oro. Zehatz-mehatz deskribatu beharko dute zer prozedura ezarriko duten egingo diren obrek eragindako altzariak identifikatzeko, kentzeko, aldi baterako biltegiratzeko eta gero berriro instalatzeko, honako hauek bermatuta:

- Altzariak kendu aurretik, haien elementu bakoitza banan-banan identifikatzea.
- Elementu bakoitza jatorrizko erabiltzailearekin lotzea zehaztasun osoz.
- Lanak amaitu ondoren, jatorrizko erabiltzaileari behar bezala berresleitzea, obraren ondorioz haren kokapen fisikoa aldatu bada ere.

Baloratuko dira proposatutako prozeduraren argitasuna, sendotasuna eta xehetasun-maila, bai eta altzariak behar bezala kudeatuko direla ziurtatzeko ezarriko diren etiketatze- eta kontrol-sistemak ere.

3 OHAR OROKORRAK

3.1 Instalazioak bisitatzea

Bisita bat egin, informazio gehigarria jaso eta/edo zalantzak argitu nahi izanez gero, hona jo ahal izango dute:

Eusko Legebiltzarreko Mantentze Lanen Atala
Telefonoa: 945 00 42 90
Helbide elektronikoa: mantenimendu@legebiltzarra.eus

3.2 Epeak eta penalizazioak

Obra beharrezko hornidura guztiak planifikatzeko behar den epearekin esleitzea aurreikusten denez, obrak egiteko aurreikusitako gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, obrei hasiera emango dien zuinketa-akta sinatzen denetik hasita, salbu eta jarduera parlamentarioari egotz dakizkiokeen inguruabarrak eta/edo atzerapenak gertatzen badira.

Nolanahi ere, obrak 2026ko abuztuaren 31rako (obraren harrerarako azken eguna) amaitu beharko dira, eta eraberritu beharreko eremua erabiltzaileei eragozpenik sortu gabe erabiltzeko moduan egon beharko da.

Obrak amaitzeko ezarritako egunarekiko atzerapen-egun bakoitzeko 500 euroko penalizazioa ezarriko da.

Adjudikaziodunak, kontratua adjudikatzen denetik hasita, zehaztutako obra-epeak betetzeko beharrezkoak diren aurretiko lanak egin ahal izango ditu, hala nola material bilketak, neurketak eta beste batzuk.

3.3 Adjudikaziodunaren kontratu-arduraduna

Adjudikaziodunak obra-arduradun bat izendatuko du, egin beharreko obren izaerari egokitutako titulazioa, esperientzia egiaztatua antzeko obretan eta obran esku hartzen duten enpresekin solaskide gisa aritzeko eta koordinatzeko gaitasuna izango dituena.

3.4 Obren zuzendaritza fakultatiboa

Legebiltzarrak teknikari bat izendatu ahal izango du, haren izenean obrako zuzendaritza-lanak egiteko, eta obrak behar bezala egiten direla koordinatu, ikuskatu, egiaztatu eta zaintzeko. Horrez gain, kontratu hau atxikitzen zaion departamentuaren (Mantentze Lanen Atala) arduradunak edo arduradunek eginkizun horiek egin ahal izango dituzte, aurrekoarekin koordinatuta eta adostuta.

Honako hauek izango dira obrako zuzendariaren eginkizunak:

- Agiri teknikoa interpretatzea.
- Lagapenaz eta azpikontratazioaz informatzea.
- Kontratu-harremanean gertatzen diren intzidentzia guztiak izapidetzea.
- Argibideak ematea lanak egiteko moduari eta erabili beharreko materialei dagokienez.
- Kontratuaren xedea behar bezala betearazteko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak egon eta erabil daitezen exijitzea.
- Behar bezala betearazteko aginduak ematea.
- Komeni diren aldaketak sartzeko proposamenak egitea eta horien berri ematea.

- Prezio kontrajarriak onartzea.
- Ziurtagiriak ezarrita dauden epe eta faseetan ematea.

3.5 Segurtasuna eta osasuna obretan

Enpresa adjudikaziodunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen legeriak ezarritakoa bete beharko du, honako hauek barne: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa; 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez; 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-obretako segurtasunaren eta osasunaren arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena; eta, hala badagokio, aplikatu beharreko beste edozein arautegi.

Eusko Legebiltzarrak enpresa bat du obretako segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten alderdiak zaintzeaz arduratzeko.

Enpresa horretako teknikariek, Eusko Legebiltzarraren izenean, segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanak egingo dituzte. Teknikari horiek arduratuko dira agiri honen xede diren obren dokumentazioa eskatzeaz eta segurtasunaren eta osasunaren jarraipen orokorra egiteaz.

Adjudikazioa jakinarazten denetik eta kontratua sinatu ondorengo zazpi egun naturalen epean, adjudikaziodunak kontratazio-organoari aurkeztuko dio Eusko Legebiltzarrean egin beharreko lanei dagokien segurtasun eta osasunerako plana edo arriskuen ebaluazio espezifikoa, kasu bakoitzean dagokiona, egin beharreko obraren errealitateari egokituta.

Segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak irizpena emango du, ea egoki den plan hori onartzea. Egoki izan ezean, adieraziko du zer puntu zuzendu behar diren, eta, horretarako, epe bat emango da, zuzenkizunen muntaren araberakoa. Adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu hark eskatutako zuzenketak eta oharpenak.

Adjudikaziodunak, dokumentazioa (plana edo ebaluazioa) onartu ondoren, behar diren izapideak egin beharko ditu lan-zentroa irekitzearen berri emateko.

3.6 Hondakinen kudeaketa

Enpresa adjudikaziodunak hondakinei buruzko arautegia bete behar du, bereziki 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena, eta haren ondoriozko arautegia, bai eta ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua ere.

Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen 112/2012 Errege Dekretuaren 8. artikuluko 1. atalaren arabera, obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak frakzio hauetan bereizi behar dira, baldin eta frakzio bakoitzari dagokion kantitateak, banan-banan harturik, obra osorako sortzea aurreikusten diren kantitate hauek gainditzen baditu, Europako Hondakin Zerrendako kodifikazioari jarraikiz:

a) Hormigoia (EHZ 170101): 10 t.
b) Adreiluak (EHZ 170102), teilak eta zeramikazko materialak (EHZ 17013): 10 t.
c) Metala (EHZ 1704; metalaren arabera, azken bi digituak hautatu behar dira): kasu guztietan.
d) Zura (EHZ 170201): kasu guztietan.
e) Beira (EHZ 170202): 0,25 t.

f) Plastikoa (EHZ 170203): kasu guztietan.
g) Papera eta kartoia (EHZ 200101): 0,25 t.
h) Sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak (EHZ 170802): kasu guztietan.

Arautegi horretan aurreikusitako beste betebehar batzuez gain, adjudikaziodunak hondakinak kudeatzeko plan bat aurkeztu beharko du, kontratua sinatu eta 15 egun baino gutxiagoko epean, sortuko diren eraikuntza- eta eraispen-hondakinei buruz dagozkion betebeharrak nola beteko dituen azaltzeko. Legebiltzarrak eta/edo zuzendaritza fakultatiboak onetsi beharko du plan hori.

Obrak amaitzen direnean, sortutako hondakinak kudeatzaile baimendu batek kudeatu dituela egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu beharko du, egindako kudeaketa justifikatzen duen dokumentazioa barne.

Legebiltzarrak Udalari fidantza itzultzea eskatzeko aurkeztu beharko dion hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eskuratzeko behar dena izango da dokumentazio hori. Adjudikaziodunak egin beharko ditu izapide horretarako behar den dokumentazio guztia entregatzeko gestioak.

4 KONTRATUAREN AURREKONTUA

4.1 Aurrekontua eta lizitazioaren prezioak

Lizitatzaile bakoitzak agiri honekin batera emandako aurrekontuan dauden partiden prezio unitarioak baloratu beharko ditu.

Lizitatzaileek kapituluen laburpena entregatuko dute, bai eta eskaintza ekonomikoa ere, zehaztutako prezio unitarioen eta emandako neurketen arabera banakatuta, agiri administratiboaren eranskinari jarraikiz. Lizitatzaileek eskainiko dituzten prezio unitarioek ezingo dituzte gainditu aurrekontu horretan adierazitako balioak.

Halaber, eskaintzarekin batera, eranskin bat aurkeztu beharko dute nahitaez, eskulanaren prezio unitarioen taula xehatuarekin, kontratua betearazten esku har dezaketen lanbide-kategorien arabera banakatuta. Eskainitako prezio unitario horiek kontratu-izaera loteslea izango dute kontratuaren indarraldi osoan. Aurreikusi gabeko obra-unitateak edo prezio kontrajarriak onartuz gero, eskulanaren balorazioa prezio horien arabera egingo da.

Eskulanaren prezioen taulak honako hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- Lanbide-kategoria.
- Prezio unitarioa orduko.
- Prezio unitarioa eguneko.

Ezein kasutan, eskulanaren prezio unitarioek ezin izango dituzte gainditu aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialetik eratorritako kostuak, eta adjudikaziodunak hori betetzen dela egiaztatu beharko du hala eskatzen zaionean.

Desadostasunik badago edo behar bezala justifikatzen ez bada, Legebiltzarrak zehaztu ahal izango du zer prezio aplikatu, egiaztatutako kostu errealen eta merkatuko balioen arabera, baina horrek ez du ekarriko kontratua gorantz aldatzea automatikoki.

Obra egin bitartean beharrezkoa balitz aurrekontuan jasota ez dauden unitateak egitea (prezio kontrajarriak), Zuzendaritza Fakultatiboak eta Eusko Legebiltzarrak zehaztuko dituzte, adjudikaziodunari entzun ondoren, unitate horiei aplikatu beharreko gehieneko prezioak, kontuan hartuta aurrekontua osatzen duten beste partida batzuekin izan daitekeen antzekotasuna.

Horretarako, partida berri bat gehitzeko beharra dagoen guztietan, adjudikaziodunak Zuzendaritza Fakultatiboari eta Eusko Legebiltzarrari aurkeztu beharko die onarpen-eskaera, lizitazioan proposatutako formatuan, bai eta beharrizanaren deskribapena, neurketak eta partida berriaren prezio banatuaren proposamena ere.

Prezio kontrajarriek zenbaki korrelatiboak izan beharko dituzte. Prezio kontrajarriaren onarpena azkartzeko, mezu elektroniko bat bidali ahal izango da, baina horren egiaztagiria egin beharko da gero, emandako ereduaren arabera. Ezin izango da partida berririk ziurtatu, dagokion prezio kontrajarria onartzen ez den bitartean.

Eusko Legebiltzarraren berariazko eta aurretiazko baimenik gabe aurreikusi gabeko unitateak gauzatzeak ez du ordainketarako eskubiderik sortuko, eta, hala badagokio, adjudikaziodunak hartu beharko ditu bere gain.

Eskaintza guztiak baldintza berdinetan baloratze aldera, ezustekoei dagokien 13.01 partida baloratzeko kontuan hartuko da emandako aurrekontuan agertzen den zenbateko bera, hau da, 3.000 euro.

151.562,86 eurokoa da obrak egiteko gehieneko aurrekontua, honela banakatuta:

- EMAren aurrekontua …….. 105.259,29 €
- GO + MI, % 19…….. 19.999,27 €
  KONTRATA EXEKUTATZEA, GUZTIRA ..... …… 125.258,56 €
- BEZa, % 21…….. 26.304,30 €
- **GUZTIRA** ..... **……151,562,86 €**

5 ESKAINTZA AURKEZTEA

5.1 Eskaintzak baloratzeko

5.1.1 Balio-iritziak aplikatuz baloratzea

Lizitatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztuko dute eskaintzen balorazio teknikorako:

1. Memoria bat, non deskribatuko baita nola identifikatuko diren altzariak eta beste gauzak, obra amaitu ondoren berriro kokatzeko.

5.1.2 Formulak aplikatuz baloratzea

Formulak aplikatuz egingo den baloraziorako, agiri administratiboan (III.1) adierazitako eranskina aurkeztuko dute. Eranskin horretan, kapituluen prezioa eta zenbatekoen laburpena jasoko dira. Halaber, eskaintza ekonomikoa aurkeztuko da, horietako bakoitzerako eskainitako neurketa eta prezio unitarioen arabera banakatuta, baita eskulanaren prezio unitarioen taula ere.

5.2 Obrak hasi aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioa

Adjudikaziodunak honako hauek aurkeztu beharko ditu obrak hasi baino lehen:

- Hondakinak kudeatzeko plana.
- Egin beharreko lanerako arriskuen ebaluazio zehatzari buruzko dokumentazioa.
- Segurtasun eta Osasuneko arduradunaren izendapena.
- Lan-zentroaren irekiera.
- Argi-azterketa, UGR mailak eta argi-mailak justifikatuta.

Legebiltzarrak obra-lizentzia eskatuko du, baina adjudikaziodunaren kontura izango dira bide publikoa okupatu behar izanez gero udalean izapidetu beharreko beste lizentziak eta tasak, aldamioen ziurtagiriak edo hark eska ditzakeen antzeko beste batzuk.

5.3 Obrak amaitzean aurkeztu beharreko dokumentazioa

Adjudikaziodunak, obren harrera egin aurretik, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- Egindako benetako lanen neurketak, Eusko Legebiltzarrak berrikusteko eta azken ziurtagiria onartzeko. Halakorik balego, onartutako prezio kontrajarri guztiak sartu beharko dira.
- Instalatutako materialen eta ekipoen dokumentazio teknikoa. Sabaien, beiren eta bestelako materialen ziurtagiriak, behar bezala antolatuta, indexatuta eta zenbakituta.
- Hondakinen kudeaketari buruzko dokumentazioa, hondakinen planaren eta obran sortutako aldaketen arabera, udal-lizentziaren fidantza itzultzeko eskatu ahal izateko.
- Honako hauen kokapenaren planoak, dwg eta pdf formatuetan: klimatizazio-instalazioak, elektrizitate-, datu- eta telebista-puntuak, eta kanalizazioen trazadurak eta koadro elektrikoak. Elementu horiek guztiak behar bezala seinaleztatuta egongo dira, obraren elementuetan egindako identifikazioarekin bat etorriz, obraren amaierako dokumentazioan txertatzeko. Legebiltzarrak oinarria emango du, dwg formatuan, haren gainean aldaketak egiteko.

Eusko Legebiltzarrak dokumentazioa zuzentzeko eskatu ahal izango dio lizitatzaileari. Erabat onartu arte, ez da obraren harrera egingo.

6 ERANSKINAK : Aurrekontua eta planoak

AGIRI TEKNIKOA

ERABERRITZEAK EUSKO LEGEBILTZARRAREN EGOITZAKO BEHEKO SOLAIRUAN

Esp.: 272/2026

AURREKONTUA

AGIRI TEKNIKOA

ERABERRITZEAK EUSKO LEGEBILTZARRAREN EGOITZAKO BEHEKO SOLAIRUAN

Esp.: 272/2026

PLANOAK

AUTZOKERRUA

